

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko abenduaren 4a. IX. urtea. 2.444. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



I. GARCIALANDA

→ **Ekitaldi ugari Euskararen Eguna ospatzeko.** Atzo izan zen Euskararen Eguna, baina ospakizun ekitaldiak asteburuan hasi ziren Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan. Tolosan, besteak beste, Euskaraz Biz! eguna egin zuten larunbatean eta Areson trikiti txapelketa bat ere egin zuten. Albizturren atzo egin zituzten ekitaldiak; herritarrek aukeratutako hitz politen bilduma osatu zuten (irudian). ◀ 3

## Titirijai txotxongilo jaialdiari «haize berriak» ematen saiatuko dira

Bukatu berri den edizioaren balorazio positiboa egin dute TEEko arduradunek eta konpainien maila «oso ona» izan dela diote ◀ 2

## Nesken sokatira txapelketako lehen jardunaldia Ibarra A taldeak irabazi du

Goma Gaineke Lauko txapelketari hasiera ona eman dio Ibarra A taldeak; gizonetakoan Ibarra B taldea bigarren sailkatu da ◀ 6

## Jose Etxebeste Igeldoko aizkolaria omendu dute Leaburun

Aizkolari gazteak eta beteranoak elkartzu ziren harri jasotzaileekin batera; Ikusmin handia izan zuen jaialdiak eta Zizurkil izan da garaile herri artekoan ◀ 7

## Zesta Punta jaialdiaz gozatzeko aukera izango da, Beotibarren

Etzi, hilak 6, 17:00etan hasiko da jaialdia, eta bi partida jokatuko dituzte; Beotibar Zesta Punta taldeak eta Jai Alive enpresak antolatu dute ◀ 6

Egin HITZaren harpidedun...

...abenduaren 31 baino lehen eta jaso  
Mahala baserriko  
produktuez osatutako  
saski ederra...



...opari



eta...

... HITZaren harpidedunen artean  
PORTUGALEN egiteko  
bi pertsonentzako zirkuitua  
zozkatuko dugu

hurremanetarako: 902 82 02 01 / [harpidedun@hitza.info](mailto:harpidedun@hitza.info)

hitza

Pasa den ostiralean *Cuidado con la Marimonda* saioaz gozatu zuten ikastetxeetako hainbat gaztetxok. I. LURKIZU

## Titirijai eraldatzea izango da Tolosako Ekinbide Etxearen 2013rako helburua

TEEko arduradunek oso balorazio ona egin dute, baita ikus-entzuleen erantzunari dagokionez ere

### Itzea Urkizu

«Haurrak nahiz helduak antzokietara erakartzeko helburua mantenduz, jaialdia eraldatu eta haize berriak ekarri beharko ditugu, behar bada, hurrengo urteko Titirijairako». Halaxe azaldu du Tolosako Ekinbide Etxeko Migel Arretzek, jaialdiaren etorkizunari begira.

Egungo egoeran aurreikuspenik ezin dela egin dio, eta «ikusi egin beharko da zer datorren». Dena den, antolatzaileek azken 30 urteetako lanarekin aurrera jarraitzeko asmoa dute 2013an ere: «Urtea nola hasten den ikusi beharko dugu, bain guk ahal dugun guztia egingo dugu jaialdia antolatzen jarraitzeko».

Migel Arretzek azaldu duenez, «balorazioa, oro har, oso positiboa da». Murrizketak hizpide izan ditu TEEko arduradunak, «Titirijairen alde txarra» izan direla nabarmenduz: «Tamalgarria izan da Aranburujauregiko erakusketak, eta baita helduei zuzendutako txotxongilo saiorik ezin antolatuta izana ere».

Ikus-entzuleek harrera, berriz, oso ona izan dela azaldu du: «Erantzuna aurreko urteetako antzekoa izan da, baina kontzentratuagoa, saio gutxiago izan baitira». Horrela beraz, txotxongilo saio guztiek aretoak bete dituzte, eta konpainien maila «oso ona» izan dela azpimarratu du Arretzek. Titiriteros de Binefar konpainiaren *El bandido cucaracha* emanaldiarekin, esaterako, Leidor aretorako sarrera guztiak saldu zituzten: «Oso hunkigarria izan zen ikuskizuna, eta oso gustura gaude».

Konpainia batzuen ikuskizunak estreinaldiak izan direla ere azaldu du TEEko arduradunak,

eta hauen aldeko apustua oso ondo atera zaiela: «Estreinaldiak ekartzean, beti izaten da arrisku pixka bat, baina nire ustez horrelako jaialdiek arriskatu egin behar dute nahitaez». Honenbestez, Bihar txotxongilo taldearen *La Odisea* obrak, nahiz Los Duendes taldearen *Mi Miko* ikuskizunak oso ondo funtzionatu dutela azaldu du Arretzek.

Aipatzekoa da, Titirijako gaztetxoaren epaimahaiak Roberto White konpainiaren *Criaturas particulares* ikuskizuna aukeratu zuela saria emateko; 70 puntu-tik 69 jaso zituen saioak.

### Saria Ibarra aldera

Aurtengo Titirijai txotxongilo jaialdiko saioetan, Herrialde Katalanetako SOS Titelles konpainiak eraikitako txotxongilo baten zoketan parte hartzeko txartelak saldu dituzte TEEko arduradunak. Guadalupe Aizpurua ibararra izan da irabazlea, eta aste osoan zehar Topic zentroan erakusgai izan diren txotxongiloetako bat irabazi du. Txartelekin lortutako dirua, SOS Titelles-ek artea eta kultur elkartrukea sustatzeko burutzen dituen jardueretara bideratuko dute.

## Taldea



### Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Zutabe hau idazteko inspirazio bila paseoa nuen baten, araba-zozo (*Sturnus vulgaris*) edo 'estornino' sail handi bat ikusi nuen hegana. Benetan harrigarria da txori mordo hauek osatzen dituzten hodei beltzen mugimenduak ikustea... Guztiek aldi berean kaka egingo balute, hor izango zen hor festa!

Hasiera batean, kontrolik gabeko dantza bat ematen zuen arren, ez zen horrela. Belatz (*Falco peregrinus*) bat agertu zenean, guztiek alde berera egin zuten ihes, forma berria hartuz, eta inondik inora ere, taldea disolbatu gabe. Zu, ni eta beste hamar lagun herriko sokamuturrera baldin bagoaz, eta ustekabeen zezena agertzen bazaigu, ziur egon gure taldea segituan disolbatuko dela; bakoitzak ahal duen lekura, eta ahal duena egitera.

Guretzat arraroa dirudien arren, jokaera hau ongi pentsatutako jokaera da. Imaginatu belatz hura zaretela eta bazkaltzeko orduan, zuei gehien atsegin zaizuen txoriz betetako hodei beltz hura ikusten duzuela.

Zer egingo zenukete, ahoa ireki eta hodeitar horretara eroaren moduan sartu? Ez al lizateke belatzarentzat arriskutsua izango, ehunka txorien artean kolperen bat jasotzea?

Errazena, hodeia zirikatuta eta hodeitik aldentzen den lehenengo koitadurengana joatea da. Gainera, esan beharra dago, talde horretatik aldentzen diren lehenengoak, taldearen erritmoa jarraitu ezin duten, gaixo, ahul edo gazteak izango direla, jakirik errazena ez dagoela!

Txori beltzekin jarraituz, ikus ditzagun beleak (*Corvus corax*). Baserritar batekin izan nuen elkarrizketa oso interesgarri batean, gizon honek, beleak tadeetan ibiltzen direla zioen, eta bele bat zaindaria zela, arriskuren bat bazegoen taldeari abisua emateko. Esperientzia bat kontatu zidan: artoa landatu berria zuenean, bele talde bat hazia jatera etorri

omen zitzaion. Gizona eskopeta hartuta, zain geratu zen, gordeta. Bele guztiak haziak jaten lurrean ipini omen ziren, eta bat elektrizitate zutabe baten gainean zaindaria lanak egiten geratu omen zen, arto hazirik jan gabe. Noski, baserritar honek, tiroz lehenik akabatu zuen belea, elektrizitate zutabe zegoena izan omen zen, bere hitzetan «bele txibatoa!».

Badirudi, animalien artean, baztuz, zaindaria izateko jaiotzen direla, eta nolabaiteko barne indar batek bultzatuta edo, beste taldekideak jardueraren batean ari diren bitartean, hauek ingurua zaintzen dutela. Eta nola ez, harrapakari bat baldin badator, be-raiek izaten dira abisua ematen lehenak eta harrapakariaren (edo eskopetadun baserritarren) lehen biktimak.

Taldean ibiltzeak, harraparienganako babes emateaz gain, baditu bestelako abantaila ugari. Migrazio garaietan adibidez, antzara (*Anser anser*) taldeak ikusten ditugu gure zeruetan V formarekin hegana migrazio garaian. Tartean ehiztari batek tiroz botatzen ez baditu behintzat! Zeruan, antzara hauek hartzen dituzten formak, hegaldi errazagoak eta energia gutxiagoz egiteko da. Antzara taldeek egiten dituzten migrazioak antzara batek bakarrik egingo balitu, ez luke lortuko migrazioak amaitzea, leher eginda amaituko luke. Izan ere, txirindularien antzera, antzarak ere elkarri lekukoa pasa behar diote, bestela, haizeak sortzen duen kontrako indarrarekin, energia gehiegi gastatuko lukete eta beraien migrazioak, paseo txikiak izango liriateke. Beraz, antzarak, taldean hegana egingez urrunago iristen dira; abantaila bat da taldean hegana egitea!

Eta orain, gaur gauean ohean pentsatzeko gai bat. Taldea muturrera eramaten badugu, inurri edo erle taldeak etortzen zaizkigu burura. Hauek ez dira ale baten moduan bizitzen, badirudi, talde osoa dela ale bakar bat.

Milioika zelula dituen gure gorputzaren barrura begiratzen badugu, ez al da hau ere zelula talde erraldoi eta oso konplexu bat? Gu bezalako bizidunen sorreraren hasiera ez al da zelula nimenoen talde antolatua? Hemendik milioika urtera, ez al dira gure Lur planetan, milioika inurritz osatutako makro-tingurriak biziko?

Ikusten duzue, bakar bakarrik gaudenean txikiak gara, baina elkartzen eta antolatzen garenean, handien pareko bihurtzen gara.

Beraz, jarraitu mail txikiak bioaniztasunetik@hotmail.com helbide elektronikora bidaltzen, edo Facebook-eko gure lagun egiten, banaka-banaka, gure ekokulturaren txoko txiki hau, handia izan dadin.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

### ↓ Iragarki laburrak

#### ALOKAIRUAN

**Etxebizitza.** Etxebizitza bat alokatzen da Tolosako Alde Zaharrean. Sukalde, egongela, 3 logela, bainugela eta terrazarekin. Interesatuak deitu 618 77 29 98 telefono zenbakira.

#### LANBILA

**Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako: etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992

# Euskaraz bizitzeko nahia zabaldu dute

Galtzaundik Eskerrak Zuri sariak banatu dizkie Mapi Grabatuak, Txapin Festa eta Banaiz Bagarako partaideei

**Imanol Garcia Landa**

Tolosaldean eta Leitzaldean hainbat ekitaldi egin dituzte Euskararen Eguna ospatzeko. Guztietan, euskaraz bizitzeko nahia zabaldu dute. Atzokoan, egunean bertan, ekitaldi ugari izan ziren, batez ere, eskoletan, eta asteburuan ere izan dira hainbat herritan. Tolosan, esaterako, Euskaraz Bizi! eguna egin zuten larunbatean, Galtzaundi Euskara Taldeak, Lizardi Kultur Elkarteak, Oargi Elkarteak, Bai Euskal Herriarik eta Tolosako Udalak antolatuta. Gustura azaldu dira antolatzaileak egunak emanda koarekin; besteak beste, bazkaltzeko 120 pertsona elkartu ziren eta Donostian egindako manifestaziora joateko autobusa bete egin zen.

Larunbatean bertan Galtzaundik Eskerrak Zuri sariak banatu zituen. Hiru aipamen berezi banatu zituen euskara elkarteak, eta horietako lehenengoa Mapi Grabatuak Anoetako enpresarentzako izan zen. «Azken urteotan pauso garrantzitsuak eman ditu enpresa munduan euskara zabaltze aldera», azaldu zuten Galtzaunditik eta gaineratu: «Euskararekiko erakutsitako konpromisoak Galtzaundik Anoetako Udalarekin sinatutako hitzarmenean du oinarri: euskararen erabileraren normalizazioa sustatzeko konpromisoa hartu zuten enpresen artean baitago Mapi grabatuak».

Bigarren aipamen berezia To-



Exkerrean, Areson larunbatean egindako Trikitixa Txapelketako irabazleak, eta, eskuinean, Berastegin atzo egindako tertuliaren une bat. A. IMAZ/I.G.L.



Galtzaundi Euskara Taldeak Eskerrak Zuri aipamen bereziak banatu zituen larunbatean. A. IMAZ

losako Txapin Festaren antolatuzaileentzat izan zen. Besteak beste, festa parekidea eta parte hartzailea dela eta aldarrikapen askoren eguna ere badela aipatu zuten, baina Galtzaundirentzat

azpimarratzekoa festa euskalduna dela da eta «gazteen arteko komunikazio hizkuntza euskara izateko egiten den ahalegina batoratu eta eskertzen dugu», zehaztu zen euskara elkartetik sa-

ria banatzerakoan. Hirugarren saria euskarara hurbildu diren atzerritarrak jaso zuten, Banaiz Bagarako partaideak. «Euskal Herrira bizitzera etorri eta euskara ikasten hasteko pausoa eman

dutenak omendu nahi ditugu. Azken batean euskara eurena egitea erabaki dutelako, euskaldunduz eta euskara ikasiz», nabarmendu zuten saria arrazoitzerakoan.

Atzokoan, esaterako, Albizturren hitz politen bilduma osatu zuten. Astebetez herritarren zerbait kaxetan hartutako hitz politak jaso zituzten atzo, eta horrekin esaldiak sortu zituzten, poesia edo bertsoak eginez. Giro ona sortu zen beste herri bat Berastegi izan zen. Bertan haurrek mahai jokoak egin zituzten, eta belaunaldi ezberdinetako euskaldunek kafe tertulia egin zuten. Kantaldiarekin amaitu zuten.

## Txapelketa Areson

Areson Euskararen Eguneko Trikiti Txapelketa jokatu zen larunbatean, besteak beste. Lau bikote igo ziren oholtza gainera, eta bakoitzak hiru pieza jo zituen. Epai-leak txapela Bidaniako Nagore Zinkunegiri eta Inaki Agirretxeri eman zien. Eskola ondoko pilotalekua jendez bete zen, eta txapelketaren ondoren, merienda dastatzeko aukera izan zuten.

**Amaia Doyague** • Galtzaundi Euskara Taldeko kidea

## «Bakoitzak hartzen dituen hizkuntza ohiturak aldatzean dago erronka»

**I. Garcia Landa**

Galtzaundi Euskara Taldeko Amaia Doyague euskalgintzan dauden erronkei buruz aritu da.

**Hainbat egitasmo dituzue abian. Nola doaz?**

Esaterako, hilabete honetan hizkuntza aniztasunaren inguruko kanpainari amaiera emango diegu. Bestalde, Mintzalaguna egitasmoan 60 lagun dabilta; martxa hartu da eta gustura daude. Norbaitek parte hartu nahi badu,

aukera du oraindik izena emateko. Ahoz aho zabaltzen den egitasmoa da eta puntualki etortzen dira parte hartu nahi dutenak. Horrez gain, enpresa mundua euskalduntzeko proiektuan 14 enpresa bisitatu ditugu Iruran eta Anoetan, eta erantzun ona jaso dugu. Hitzarmena ere sinatu genuen zenbait kirol elkarterekin euskalduntze prozesuan laguntzeko, eta lanean ari gara.

**Datorren urteari begira zein dira erronkak?**

Euskalgintza saretu nahi dugu, eta horren baitan eskualdean Euskara Mahaia osatu dugu eta bertan hainbat gizarte eragilek parte hartzen dute. 2013ra begira, elkarrekin koordinazioan herriko hutsunez ohartu, eta ea denen artean indartu eta lana eraginkorrago egiten dugun. Bestalde, gazte, heldu eta hirugarren sektoreari begirako egitasmoak ere abian jarriko ditugu.

**Euskararen erabileran erronka hitz-tun kopurua handitzea zen lehen,**

**eta orain, Topagunetik azaldu denez, euskara erakargarri egitea da.**

Egia esan oso leku pribilegiatuan bizi gara gu. Hemen jendeak badaki euskaraz, eta gure erronka nagusia enabilerari loturikoa da. Adibidez, datorren urtean gazteei zuzendutako egitasmoetan ez da arazorik izango euskaraz ez dakitelako, baizik eta erabileran. Noski hizkuntza erakargarria egin behar da, baina gure nahia ahoan jartzea da, erabiltzea.

**Bide horretan zein dira zailtasun nagusiak?**

Bakoitzak hartzen dituen hizkuntza ohitura horiek aldatzean dago benetako erronka. Nik uste dut hizkuntza jakintasunaren aldetik maila altua dagoela Tolosaldean, baina erabileran daukagu gabezia eta hori da erronka. Gauzak inkontzienteki egiten ditugu, inertziaz jokatzen dugu, eta nik uste dut une bat hartu behar dugula gelditu eta konturatzeko zer hizkuntza ari garen erabiltzen, zer ari garen transmititzen.

**Zer mezu emango zenioke gizaritari?**

Guri ilusioa daukagu eta lanean jarraituko dugu. 2013 urtean lan-keta indartsuak etorriko dira, Korrika dela, kilometroak direla, eta, beraz, euskaraz zipiritzintzeko ezin egokiagoa izango da.



**Kirolak****↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

<b>BINAKAKO ERREMONTE TXAPELKETA</b>	
Laugarren jardunaldia	
<b>Zeberio II.a-Agirrezabala</b>	38
Juaristi-Ion	40

<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>	
<b>Kadeteak banaka</b>	
<b>Aur. Saiaz-Zaz. Iturri</b>	18-3
<b>Kadeteak binaka</b>	
<b>Aur. Saiaz 1-Antigua</b>	22-3
<b>Aur. Saiaz 2-Zaz. Iturri 1</b>	22-8
<b>Jubenilak banaka</b>	
<b>Aurrera Saiaz 2-Intza</b>	22-6
<b>Jubenilak binaka lehen maila</b>	
<b>Aurrera Saiaz 2-Intza</b>	22-14
<b>Aurrera Saiaz 3-Oiarpe 1</b>	22-1
<b>Jubenilak binaka 2. maila</b>	
<b>Aur. Saiaz 1-Txapagain</b>	22-13

**ARETO FUTBOLA**

<b>HIRUGARREN MAILA</b>	
<b>11. jardunaldia</b>	
<b>Bilbo-Laskorain</b>	1-1
<b>Buruntza-Ibarra</b>	4-2
<b>Goierri-Egintza T.L.</b>	6-5
<b>Santurtzi-Tolosala</b>	1-9

**Saillapena**

<b>1. Ibarra</b>	28 p
2. Aurrera	24 p
3. Bilbo CFS	23 p
4. Inter Eder Kafetegia	22 p
5. Tolosala Hirukide	21 p
6. Soloarte	19 p
7. Goierri	19 p
8. Sestao	16 p
9. Santurtzi	16 p
10. Zarautz	15 p
11. Laskorain	14 p
12. Buruntza	12 p
13. San Jorge	9 p
14. Egintza	7 p
15. Mallabia	7 p
16. Gora	0 p

**Hurrengo jardunaldia**

<b>Ibarra - Aurrera</b>
<b>Laskorain - Goierri</b>
<b>Tolosala Hirukide - Bilbo</b>
<b>Egintza - Inter Eder</b>

**FUTBOLA**

<b>ERREGIONAL OHOREZKOA</b>	
<b>12. jardunaldia</b>	
<b>Aloña Mendi - Tolosa CF</b>	1-0
<b>Hurrengo jardunaldia</b>	
<b>Tolosa CF - Bergara</b>	

**SOKATIRA**

<b>GOMA GAINEKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA</b>	
<b>300 kiloko 1. jardunaldia</b>	
<b>A multzoa</b>	
1. Sokarri B	6 puntu
2. Amaiur	5 p
3. Urruña	4 p
4. Abadiño B	3p
5. Ibarra A	2 p

**B multzoa**

1. Abadiño A	6 puntu
2. Ibarra B	2 p

**260 kiloko 1. jardunaldia (emakumezkoak)**

1. Ibarra A	6 p
2. Badaioz	5 p
3. Ibarra B	3,5 p

# Ibarra A garaile, Euskadiko Sokatira Txapelketako lehenengo jardunaldian

Nesken taldeak lehen jardunaldia irabazi du; gizonezkoetan, Ibarra B taldea bigarren sailkatu da

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Goma Gaineko Lauko Euskadiko Sokatira txapelketari ekin diote Ibarra Sokatira taldeko neskek. Ezin hobeto ekin ere, izan ere, larunbatean Beasainen jokatu zen 260 kiloko lehen jardunaldian lehen postua erdietsi zuen Ibarra A taldeak.

Sei talde aritu ziren lehian, elkarren aurkako ligaxkan: Badaioz (Gasteiz, Araba), Ibarra A eta B, Bizindar A eta B (Zaratamo, Bizkaia) eta Berriozar (Berriozar, Nafarroa Beherea). Ibarra A eta Badaioz izan ziren bi talderik indartsuenak. Elkarren arteko lehian, Ibarra A-k eraman zituen bi tiraldiak. Ibarra B-k eta Berriozarrek tiraldi bana irabazi zitoten elkarri.

Ibarra A, beraz, 6 punturekin lehen postuan kokatu da. Bere atzetik Badaioz, 5 punturekin, eta ibartarren beste taldea, hau da, Ibarra B, hirugarren postuan dago, 3,5 punturekin.

Gizonezkoen txapelketa ere jokatu zen Beasainen, 300 kiloko lehen jardunaldia, hain zuzen. Ber-



Ibarra sokatira taldeko neska, larunbatean, Beasaingo jardunaldian. HITZA

tan Ibarra B-k bigarren postua lortu zuen B multzoan. Multzo horretan, Abadiño A gailendu zen, A multzoan Sokarri B nagusitu zen, eta C multzoan, Napurrak B. Gizonezkoetan 18 talde lehiatuko dira hiru multzotan banatuta, eta horietatik bi dira Ibarra taldekoak, Ibarra A eta B.

A multzoan, Sokarri B-k saioko txanda eta tiraldi guztiak irabazi

zituena eta Amaiurrek Arrigorriagakoen aurka galdu zuen soilik. Ibarra A, 2 puntu batuta, bostgarren postuan sailkatu da. B multzoan, berriz, Abadiño A-k mendean hartu zituen bost kontrarioak, eta tiraldi guztiak irabazi zituen.

Ibarra B sailkatu zen bigarren, Abadiño A-ren aurka bi tiraldiak galdu eta Berriozar B-ren aurka

tiraldi bat galduta. Beraz, Ibarra B bigarren da, 5 punturekin. C multzoan, Napurrak B-k eraman zituen jardunaldiko sei puntuak, soilik tiraldi bat galduta, Sokarri A-ren aurkako.

Hurrengo jardunaldia abenduaren 15ean, larunbatean, izango da. Artziniegako (Araba) kiroldegian. 17:30ean emango zaio hasiera.

## Zesta punta jaialdia izango da etzi, Beotibar pilotalekuan

17:00etan hasiko da; Egiguren-Alliez Oiharan-Hernandezen aurka ariko dira partida nagusian

**I. Terradillos** Tolosa

Beotibar Zesta Punta taldeak eta Jai Alive enpresak zesta punta jaialdia antolatatu dute etzizirako Tolosako Beotibar pilotalekuan. Jaialdia 17:00etan hasiko da, eta bi partidaz gozatzeko aukera izango da.

Lehenengoan 22 urtez azpiko Europako Txapelketa irabazi berri duten Beñat eta Arkaitz tolosarrak ariko dira Beñat-Alliez II.aren aurka. Partida nagusian, Egiguren II.a eta Alliez I.a Oiharan eta Hernandezen aurka lehiatuko dira.

Beotibar zesta punta taldeko Andoni Lertxundik adierazi due-



Beotibarren bi zesta punta partida izango dira ikusgai. IT.

naren arabera, jaialdi hau «oso garrantzitsua» da taldearentzat. «Egun 35 gazte daude taldean kirol honetan jokatzeko ikasten, eta aukera polita izango da eurentzat jokalarri profesionalen partidak ikustea», adierazi du.

Bestalde, Lertxundik azaldu duenez, ikasturtean zehar Samaniego ikastetxeko 150 ikasle inguru izan dira dagoeneko Beotibar frontoian zesta puntan trebatzen,

soinketa orduetan. «Asko gozatu dute kirol hau probatzen, oso gustura gaude, eta beste ikastetxetan ere gauza bera egitea espero dugu».

Zesta puntan trebatu diren gazte guztiak jaialdirako gonbidapena jaso dituzte, beraz, jende asko izatea espero dute. Sarrera doakoa da, eta nahi duenak bere aportazioa egin ahalko du..

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Ane Iriarte Gipuzkoako Pista Sarian, lehenengo postuan

Billabonatarren atzetik, saillapen orokorrean, Leire Olaberria ikaztegiatarra dago, lau puntura

**I. Terradillos**

Gipuzkoako Pista Sariaren barruan, laugarren jardunaldia jokatu dute asteburuan. Bada, igandeko proban lortutako puntuen arabera, emakumezkoetan Ane Iriarte (Limousin) billabonatarra igaro da saillapen orokorreko lehen postura, 67 punturekin. Bere atzetik sailkatu da Leire Olaberria (Fullgas.org) ikaztegiatarra, 63 punturekin. Eskualdeko Maddi Amondarain (Limousin), berriz, hamargarren da, 30 punturekin.

# Zizurkil garaile, Leaburun izandako herri kirol jaialdian

Joseba Otaegik eta Jon Irazuk osaturiko bikoteak Etxarriko Nazabal eta Erdozia hartu ditu mendean

**I. Terradillos** Leaburu

Jose Etxebeste Igeldoko aizkolarien omenezko jaialdia egin zuten larunbatean Leaburun. Aizkolariek hiru lehiaketa desberdinetan parte hartu zuten. Batetik, beteranoen binakako txapelketa. Miel Mindegia Ezkurra eta Antonio Jaunarena leitzarra —Jon Jaunarena pilotariaren aita— izan ziren garaileak, finalean Larretxea eta Barberena mendean hartu ostean. Banakako saioan, bestalde, Aitzol Atutxa bizkaitarra izan zen nagusi.

Herri arteko binakako txapel-



Beteranoen arteko aizkora lehiak ikusmin handia piztu zuen. JONE AMONARRIZ

keta ere egin zuten. Bertan, Jon Rekondo eta Ruben Saralegi leitzarrak, Unai Otaño eta Jesus Mari Mujika ibartarrak, Joseba Otaegi eta Jon Irazu zizurkildarrak eta Angel Arrospe leaburuarra aritu ziren, beste hainbat aizkolariren artean lehian. Estreinakoz egin dute herrien arteko txapelketa aizkoran, eta zaleek gozatu ederra hartu zuten. Zizurkilek eman zuen garaipena. Otaegi eta Irazu ederki moldatu ziren

elkarrekin, eta finalean Etxarriko taldea, hau da, Nazabal eta Erdozia hartu zituzten mendean.

Harri jasotzen, bestalde, Inaki Perurena leitzarra aritu zen, Izeta II.a, Martinez eta Atxarekin.

Jaialdiak ikusmin handia piztu zuen, beteranoen parte hartzeagatik, eta herrien artean eginiko txapelketarengatik, batez ere. Horren adierazle, Apatta Errekan kokaturiko Diva lantegiaren pabilioja jendez bete zen.

# Zeberio II.ak galdu egin du ligaxkakako laugarren jardunaldian

Agirrezabalarekin batera 38-40 egin du Juaristi eta Ionen aurka; aurrera egiteko aukerak murriztu ditu

**I. Terradillos** Elduain

Erremonteko Binakako Txapelketako ligaxkakako laugarren jardunaldia jokatu zuen larunbatean Zeberio elduaindarrak. Agirrezabalarekin batera jokatu zuen norgehiagoka, Juaristi eta Ionen aurka, eta 38-40ko emaitzarekin galdu zuen.

Partidak bi zati izan zituzten. Lehenengoan, Juaristi eta Ion indartsuago ageri ziren. Partidan sartuago zeudela nabari zen, eta hasieratik aurretik jarri ziren. Hala, 1-7 jarri ziren, 5-13, 12-19 eta 16-24 eta baita 17-28 ere. Beraz, nagusi izan ziren aurkariak partidaren zati handi batean.

Agirrezabalak ezin zuen Ionekin, eta Zeberio ez zen gehiegi sartu partidaren erritmoan. Juaristi

zen erritmoa markatzen zuena. Dena den, urdinek garaipena gertu zutela zirudienean, gorriak partidari buelta emateko borrokarri ekin zioten. Zeberio jokoan sartu zen, eta Ionek hainbat akats egin zituen. Ondorioz, markagailua 17-28tik 27-29ra igaro zen.

Bazirudien partida berriro hasiera zihola, eta partidaren azken zati hori izan zen politena, tanto eder ugari egin baitzituzten. 32 nahiz 33na berdindu ostean, urdinak berriro pixka bat aldendu ziren, eta 35-39 jarri ziren. 38-39 jar-tzea lortu zuten gorriek, baina azken tantoa Juaristi eta Ionen aldekoa izan zen.

Bada, Zeberio eta Agirrezabalak zazpi puntu batu zituzten, eta zail duten arren, oraindik ere finalerdietara sailkatzeko itxaropena ez dute galdu. Euren aurkariak, Juaristi eta Ionek hamar puntu dituzte, eta sailkapeneko lehen postuan daude. Aipatzekoa da Zeberio II.aren bikote bezala Agirrezabalak jokatu zuela, Aizpurua II.a tolosarra oraindik ere ez baita osatu.

# Asteburu kaskarra eskualdeko areto futbol taldeentzat

Laskorainek berdinketa erdietsi du, baina gainerako hiru taldeek ezin izan dituzte euren aurkariak garaitu

**I. Terradillos**

Areto futbol taldeko hirugarren mailan eskualdeko lau talde ari dira lehian, eta hirurentzat, bereziki, baina, laurentzat ere, kaskarra izan da igaro den asteburua. Izan ere, Laskorain taldea kudenta —hauek berdinketa erdietsi zuten— gainerakoek porrotare-

kin amaitu zituzten partidak, puntuak batu gabe, beraz.

Ibarra areto futbol taldea maila ona ari da erakusten aurtengo denboraldian, eta horren erakusle, sailkapen orokorrean betetzen duen lehenengo postua. Hamai-kagarren jardunaldian, baina, porrot egin dute ibartarrek, ezin izan baitute Buruntza taldearen aurka. 4-2 irabazi zieten Buruntzakoek. Dena den, ibartarrek ez dute lider postua galdu, eta oraindik lau puntuko aldea ateratzen diete bigarren sailkatuari, Gas-teizko Aurrerari. Hain zuzen ere, gasteiztarren aurka jokatu dute, etxean, ibartarrek hurren-

go partida. Garrantzi berezia izango duen partida, inondik ino-ra.

Sailkapen orokorrean bosgarren postuan Tolosala Hirukide dago. Tolosarrekin nabarmen galdu zuten Santurtziaren aurka, 1-9, hain zuzen. Lehen zatian 3-0 amaitu zuten eta bigarren zatian aldea handituz joan zen markagailuak 9-1 adierazi arte. Emaitza hau atzean utzi eta burua altza behar dutela azaldu dute taldeki-deek, «ostegun eguerdian Bilbo talde indartsua izango baitugu aurrez aurre». Tolosarrekin bilbotarrei aurre egiteko gai izango direla uste dute.

Laskorain areto futbol taldeak, bestalde, berdinketa erdietsi zuen Bilbo CFS taldearen aurka. Horitxoek sei jardunaldi daramatzate porrotik jaso gabe, baina ezin esan horietatik garaipenak ugari izan direnik, bakarra irabazi baitute. Beraz, puntu gutxi batu dituzte, eta ondorioz, hamai-kagarren postuan daude tolosarrekin. Dena den azken garaipena garrantzitsua izan da, talde handia baita Bilbo. Defentsa landu batean oinarrituaz partida bikaina osatu zuen Laskorainek, denbora guztian bilbotarrak kontrolatzen mantentzea lortu zutelarik. Lehenengo zatia hutsean amaitu

zen, eta bigarrean aurkariak aurretik jarri baziren ere, partidaren hondarrean lortu zuten berdinketa tolosarrekin. Goierriren aurka jokatu du Laskorainek hurrengo partida.

Egintza, berriz, sailkapenean kaskarren doan eskualdeko taldea da, 14. postuan kokaturik. Goierrinen aurka jokatu zuten azken partida, eta 6-5eko markagailuarekin galdu zuten. Bada, postu berean dauden arren, euren atzetik dagoen Mallabiak puntuz berdintzea lortu du. Hurrengo partidari dagokionez, Inter Eder Kafetegia taldearen aurka jokatu dute, arerio indartsua, beraz.

**Hilberriak eta urteurrenak**

**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**MARIA EZKURRA TELLETXEA**

'Naparra'

(Joxe Mujikaren alarguna)

Abenduaren 3an hil zen, 91 urte zituela.

**AMONA** hain maite izan zaitugun

zure bilobek eta birbilobek beti gogoan izango dugu zure goxotasuna, borondatea eta maitasuna gureganako. Agur eta muxu handi bat.

**ZURE BILOBEK ETA BIRBILOBEK** beti gogoan izango zaitugu.

Helbidea: Iurreamendi egoitza.

Ibarran, 2012ko abenduaren 4a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaundi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leizalzeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalanantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Tolosa&Co elkarteko saltoki askok atek irekiko dituzte, etzi

Merkatarien VISA txartela duten saltokietan erabili daitekeen 3.000 euroko txartela zozkatu dute

Rebeka Calvo Tolosa

Iaz egin moduan, aurten ere, Tolosa&Co merkatariek elkarteko hainbat saltokik atek irekiko dituzte, etzi, hilaren 6ean.

Irekiera zabalda izango da, gutxi gorabehera 50 saltoki zango baitira zabalik. Atzo aurkeztu zuten ostegunerako antolatu duten egitarau oparoa, eta Juanjo Ruizek azaldu zuenez, herriak bizia izan dezan elkarlanean antolatu dute. Eta Tolosara hurbiltzeko gonbidapena luzatu zuen. Burrentzien eta hanburgesen azoka izango dela gogora ekarri zuen, eta 2 eta 3 eurotan erosi ahaliko direla txartelak. Gainera, aeromodalismoaz eta itsasmodelismoaz gozatzeko

aukera izango da, Berazubini eta Zerkausian, hurrenez hurren.

### Isabel Etxeberria irabazle

Era berean, merkatarien elkarteak egin du jada, Tolosa & Co VISA txartela duten dendetan erabili ahal izateko 3.000 euroko txartelaren zozketa, eta Isabel Etxeberria izan da irabazlea. Gutxi gorabehera, 3.500 erosketen artean egin zuten zozketa eta Ponpox zapata dendan egindako erosketa batek eman dio saria.

### Egitaraua

#### ABENDUAK 6, OSTEGUNA

- **Aeromodelismoa.** Berazubiko estadioan, 11:00etatik 13:00etara (eguraldi txarra eginez gero, Beotibarren).
- **Itsas modelismoa.** Zerkausian ontziralekuan, 12:00etatik 14:00etara.
- **Burrentzien eta hanburgesen azoka.** Zerkausian, 14:00etatik aurrera.
- **Tren turistikoa.** Tolosatik barrera ibiliko da, 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.
- **Hipo ta Tomax pailazoak.** Zerkausian, 17:30etik aurrera.

### Agenda

#### DEIALDIAK

- **Ibarra.** Koloneko minbiziari buruzko prebentzio programaren barruan, gaztelaniako hitzaldia eskainiko dute gaur, 19:00etan, kultur etxean.
- **Tolosa.** Jatorkin etorkinen elkarteak antolatutako etorkinen familiak eskoletan integratzeko laguntza egitasmoaren barruan Jesus Prieto Mendazak hitzaldia eskainiko du gaur, 18:00etan, kultur etxean.

#### ERAKUSKETAK

- **Ikaztegieta.** Argazki zaharren erakusketa udaletxean, gaur eta bihar. 16:00etatik 18:00etara ikusi daiteke.
- **Larraul.** Koldo Jauregiren aho soinu bilduma museo etnografikoan, urte bukaerara arte.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren 110 lan biltzen dituen *Bidaia bat txotxongiolen mundura* erakusketa ikusi daiteke martxoaren 10era arte.
- **Tolosa.** Inmakulada ikastetxeak eta Mugen Gainetik-ek antolatuta, Guatemalako Ixil eskualdeko emakumeen inguruko erakusketa, Aranburun.



Atzo aurkeztu zuten hilaren 6erako prestatu duten egitaraua. E.M.



Izaskun Etxeberria zozketako irabazlea, ezkerrean elkarteko Juanjo Ruiz eta eskubian Caja Ruraleko Iker Lizardi dituela. I.U.

### Farmaziak

#### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Euskal Herria, 3. 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

### Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

#### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● **agurrak**

# Tolosa&Co

### ABENDUAK 6, osteguna EGITARAUA

- Aeromodelismoa Berazubiko estadioan (11:00etatik 13:00etara)
- Itsasmodelismoa Zerkausian ontziralekuan (12:00etatik 14:00etara)
- Burrentzien eta hanburgesen azoka Zerkausian (14:00etatik aurrera)
- Tren turistikoa Tolosatik barrera (11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era)
- Hipo ta Tomax pailazoak Zerkausian (17:30etik aurrera)